

Irrati-transmisoreak
meategietan

Berrogei milimetroko irrati-transmisoreak hainbat eta hainbat meatzariren bizitzak babestuko ditu aurrerantz. Meategietan istripuak, leherketak edo lur-jauziak direnean kanpoan dauden lankideek lurrazpian zenbat meatzari eta zehazki non dauden jakin ahal izango dute. Irrati-transmisore txikia langileen kaskoko lanparran itsasten da eta bateriaren indarra erabiliko du. Meategiko hormetako sabaiak dauden hargailuek meatzari bakoitzeko seinalea jasoko dute eta aldi berean horiek kobrezko hariaren bidez, seinalea kontrolatzaileetara bidaliko dute. Horietan, ordua, data eta langileen posizioa gordeko dira eta ondoren, lurrazaleko ordenadoreetara transmitituko da informazio guztia.

Meategietan istripuak, leherketak edo lur-jauziak direnean kanpoan dauden lankideek lurrazpian zenbat meatzari eta zehazki non dauden jakin ahal izango dute eta berrogei milimetroko irrati-transmisore berriari esker.



Zailtasunik handiena meategien baldintzetara egokitutako irrati-frekuentzia aurkitzea izan zen, horma ugariak eta iraganbide bihurriek seinalea oztopatzen baitzuten. Hargailua diseinatzeak ere bere lanak eman zituen, meatzari bakoitzaren seinalea besteengandik bananduta jaso behar baitzuen. Hegoafrikan daude munduko meategi sakon eta gogorrenetakoak eta bertan erabili dute lehen aldiz irrati-transmisore berria.

Jostailuak baino gehiago

Errealitate birtual gure eguneroko bizimoduak aldatu ezezik, ezinbesteko tresna bihurtuko dela diote aurrikuspenik baikorrenak. Alabaina, edozein eginbidetan errealitate birtualaz baliatu ahal izateko, horrek epe motz eta ertainean izango dituen ondorioak eza-gutu beharra dago. Horixe da hain zuzen. Sega jostailu-entresa ezagunak EEBBetako Sri International erakundeari eskatutako ikerlanaren xedea: errealitate birtualak umeengan sor ditzakeen osasun-ondorioak aztertzea, alegia. Segaren helburua aurki merkatuan jarriko duen jostailu berriaren bideragarritasuna frogatzea zen, eta behin-behineko emaitzik eman ez badute ere, orain arte lortutako datuek jostailuari etorkizun iluna iragarri diote.



Buruko minak, ikusmen-galerak eta portaera aldaketa bortitzak iragarri ditu Sri International erakundeak errealitate birtualean oinarritutako jostailuak sarritan erabiliko dituzten haurrentzat. Iragarpen horiek beteko ote diren ikusteko badago ere, alarma piztu da jadanik.

Izan ere, buruko minak, ikusmen-galerak eta portaera aldaketa bortitzak iragarri ditu Sri International erakundeak errealitate birtualean oinarritutako jostailuak sarritan erabiliko dituzten haurrentzat. Iragarpen horiek beteko ote diren ikusteko badago ere, alarma piztu da jadanik.

Birus berriaren
agerpenaz kezku

Noizean behin agertzen dira eta berebiziko asaldura sortu eta gero, etorri diren lekutik alde egiten dute berritua, erabiltzaileak lur eta zur utzirik. Ordenadoreak maiz erabiltzen ditugunok hain maitekiro zerrendatzen ditugun birusei buruz ari gara,

noski eta zorigaitzoko albistea plazaratzeko arrazoia orainoa: Word 6.0 programa ezagunari eraso egiten dion birusa agertu izana da, Winword Concept izeneko birusa agertu izana, alegia. Zehatzagoak izateko, birusak ez dio Word 6.0 testu-prozesadore ezagunari eraso egiten, horren bidez landutako testu-fitxategiei baizik. Galdera berehala datorkigu burura: programatik ez bada, nondik jasotzen ditu ditxosozko birusak eraso egiteko aginduak? Agidanez, Word programak erabiltzen dituen programazio-lengoaiez baliatzen da birusa testuaren aurka joateko. Birusak beraz, lengoia horien bidez irekitzen den programaren aplikazio baten moduan funtzionatzen du eta programa ireki orduko hedatzen da testu osora.